

HAUR TXIKIAK: NORK hezi behar ditu? NON hezi behar ditugu?

Galdera bikoitza duen izenburu honek, ez du ordea bat-batean erantzun errex bat emateko modurik. Haur txikien heziketan gabiltzanon artean -eta haurrentzat haur-eskolak aldarrikatzen ditugunen artean- hamaika jira-bira emanak gara gai honen inguruan. Ona da haurarentzat familia ez den instituzio batetan hezitzea? Beretzako mesede da ordutegi zabaleko eskaintza egitea? Erabaki guztiak gurasoen ardura dira ala guk ere badugu esatekorik, erabakitze korik? Ongi edota gaizki egiterakoan, guraso ala ikastetxearen erantzukizuna da? Nora garamatza gizarte egituraketa honek haur txikien heziketa planteatzerakoan? Instituzioko haurra da etorkizuna? Familia zer? Gisako mila galdera daude beti gure eztabaidetan.

Historian zehar Haur-eskolak helburu ezberdinagatik sortu izan dira, nagusiena, nola ez, emakume eta gizasemeen emplegu-aukera berdintasunaren aldarrikapena izan ohi bada ere. Bainan helburu gehiago egon dira. Esparru gizarteratze gile berriak eskaintzea haurrei, estimulu hobegoko espazio eta materialak eskaintzea, esperientzia eta ezagupen espezifikoa duten profesionalen eskuhartzea... Eta haurren heziketaren kalitatea hobetuz, urteen poderioz joan gara haur-eskoletako sare oso bat antolatzen, guraso eta haurren beharrak modu koherente batez integratzen haurren heziketa ikuspuntu batetik, lege egoki bat eraikitzen etab. luze bat.

Eta hemen gaude 2000. urtean. Haur txikiak gero eta gehiago doaz eskolara, eskola/haur-eskola gehiago ireki dira, gizartean gero eta normalagoz hartzen da egoera hau, gurasoen eskakizuna areagotzen ari da... Hasitako bideak fruituak eman ditu, garbi dago eta eskaintza bat egoteak, era berean behar berriak sortu ditu eta behar berriei erantzun beharrak, zerbitzuak egokitzea eskatzen du eta horrela goaz gizarte dinamikoari aurre egiten.

Baina, asmatzen dugu?. Momentu honetan -eta guztiok dakigu ikastetxeen arteko konpetentzi zorratzaren arazoa tartean dagoela- zerbitzuak gero eta zabalagoak eskaintzen dira: "Gurasoak behar dute"... "gurasoak eskatzen dute"... "gurasoak ezin dute"... eta eskolak bere propagandaren pizgarria (ikus bestela matrikulazioaren iragarkiak) gurasoak haurrengandik ahalik eta askeen uzteko aukera eskaintzea izaten da.

Eskola, komunitatean txertaturiko zerbitzu bat da. Haurren heziketa du helburu baina ezin du ahaztu ere gizarteari begira egin behar duela bere eskola eta ematen diren aldaketak, garapen ekonomikoaren ondorioz, familia egitura berrien kausaz, eskolen konzentrazioaren eraginez, enplegu prekarietatea tartean dagoelako, etab. luze batengatik, eskolak ere errealitate berrira egokitzen du bere eskaintza. Hor ditugu, jangelak, garraio zerbitzua, eskolaz kanpoko aktibitateak eta, gero eta gehiago zabaltzen ari diren, haurtzaindegi zerbitzuak, hau da, kasu batzuetan eskola-ordutik kanpo haur txikiak zaintzeko jartzen diren zerbitzuak izaten dira eta beste batzuetan haur txikiei zuzendutako haur-eskolak edo haurtzaindegiak ia-ia mugarik gabeko eskaintza egiten dituztenak. Eta gai honi lotuko natzaio artikuluko honetan.

Gurasoek behar dituzte zerbitzu horiek, horren aurka ez dago ezer esatekorik. Lana dela medio haurrak leku egoki eta seguru batetan utzi beharrean aurkitzen dira familia asko, baina, kontuz!. Zer da egoki, non dago muga, zein da gurasoaren eginbeharra, zein instituzioarena. Haurra non dago?

Urteek erakutsi digute eskaintza eta premia oso uztarturik doazen bi errealitate direla, hau da, premiak, askotan, eskaintzari lotuta sortzen direla. "Zer daukat, hau egin dezaket" = "Haurra zaintzeko arazorik ez daukat, horri heldu dezaioket"... Bi hitzetan esanda, zenbat eta zabaltasun haundiagoa egon zerbitzuetan, orduan eta gurasoen premiak areagotzen direla, alegia, ondorioz haurrei eskola/haur-eskoletan ordu gehiago pasatzea tokatzen zaielarik.

Gurasoen presentzia gero eta murriztagoa da haurraren bizitzan eta haunditzen doan gorpil honetan, gurasoak gero eta gutxiago doaz prestatzen (mentalizatzen) haurraren bizitza/heziketan parte hartzeko. Badago nire ustez gurasoaren eginkizunen delegazio puntu bat. Delegazioa diot eta ez ajolagabekeria. Ez dago nire ustez asmo txarrik, formazio falta baizik eta okerrena dena, piskanaka kultura berri bat sortzen ari dela guraso eginkizunaren esparruan, baloreekin zerikusi zuzena duena. Haurrak egiten dira baina ez dakit zenbatetaraino gauden prest gure bizitzako zati bat beraiei eskaintzeko txikiak direnean. Neketsuk gertatzen zaizkigu, gure bizitza-planen puskatzaile, ez dakigu zer egin, non pasiatu... Etxean egoten ez dakigu eta haurrak aski

gutxi gozatzen dute etxeko espazio eta familia giroaz. Gero eta gutxiago. Eta uste dut ez dela aldaketa mesedegarria, ez behintzat ikusten duguna ikusi eta gero.

Eskolak zerikusi haundia du prozesu honetan. Gurasoek haurraren mesedea zaindu behar dute bainan eskolek ere bai, eta niretzako -heziketaren profesionalak garen neurrian- gidaritza hartu beharko genduke haurraren ongizatea babesterakoan eta eskoletatik egiten ditugun zerbitzuak diseinatzerakoan.

Zerbitzu guztiak ez dira haurrarentzako onak, are gutxiago familiaren behar eta eskaerak soilik kontutan hartzen dituztenak. Haurrak biltzeko lekuak, haurrak gainbegiratuak egongo direnak, besterik gabe, ez dira onak. Zerbitzu on batek haurraren atentzioa eta heziketa, marko bakarrean, ber-berean integratzea lortu behar du. Eta profesional onak (onenak ez esatearren) egon behar dute haur txikiekin, zerbitzu horietan. Ez edonor.

Baina, baita ere esan behar dugu zerbitzu bat ona izan arren, ez dela "ona mugagabea". Bigarren faktorea haurrak haur-eskolan igarotzen duen jornada da. Gure urtetako borroka hauxe izan da, alegia, gurasoei ikustaraztea zerbitzu bat ordu askoz irekita egon arren, haur batek -eta oso haur txikiaz ari gara- ezin duela hainbeste ordu egon leku itxi batetan (berdin zait kanpoan jolas-leku bat baldin badu ere) taldean bizitzen eta beretzako bakarra izango den atentzioa, sakon bizi gabe. Haur-eskolak abantaila asko ditu haurrarentzat, seguru aski guraso askok uste izango dutena baino askoz gehiago. Bainan muga batekin, gauza guztiak bezela. Inork pentsatu du hilabetetako hurrek, urte betekoek, bikoek... beren gurasoen lan-jornadak baino luzeagoak egiten dituztela haur-eskoletan?

Apustua, dauden beharrak ahalik eta modu hobereak ezkontzea da. Familia, lana eta haurra, hiru errealitate uztartu beharrekoak dira eskola erantzukizunaren aldetik, bainan kontutan izanda eskola edo haur-eskola ez dela inoiz soluzio totala izango familiarentzat, ezinezkoa delako.

Zerbitzu batek inoiz ezin izango du kaso guztiak konpondu. Pentsatu besterik ez dugu gaixotzen diren hurrekin gertatzen zaiguna. Hauek ezin dute eskolara joan,

normala den bezela, eta egoera hauetarako familiak bere soluzio bideak konponduak edukitzen ditu, edo eduki behar izaten ditu, behintzat. Lanarekin gauza berdintsua gertatzen da. Ikastetxe batek inoiz ezin izango ditu gurasoen behar guztiei erantzun, era guztietako premiak daudelako, ordutegiari lotuak batzuk, besteak asteko egunari, eta zin-zinetan aritu arren, ilunabarra-gaueko orduak, larunbata-igandetakoak, oporrak etab. hor geratzen zaizkigu zintzilik beste soluzio baten zai.

Gurasoek lana egin behar dute eta zerbitzu bereziak behar dituzte. Instituzioek (eskola/ikastolek, ludotekek, haurtzaindegiek, haur-eskolek, aisialdiko proposamenek) arazoaren zati haundiena betetzen dituzte, familia gehienek behar dutena errez eta soberan gaindituz, baina beti geratuko zaizkigu kasu partikularrak eta batzuegatik etzait mesedegarria iruditzen guztiak dinamika berdinean sartzea, instituzio-zerbitzuak gero eta gehigo luzatuz. Adibide bat jartzearren, oporretan ixten ez duten zentruak jarriko nituzke. Gutxi ezagutzen ditut, bainan urte guztian oporrik gabe geratu diren haur txiki batzuk, hauetan ezagutu ditut. Gero haundiagoak direnean, orduan bai, orduan eskubide guztiak izango dituzte beraien gurasoekin egoteko eta oporrak giro ezberdin batetan pasa eta indarberritzeko.

Bukatzeko haurraren aldeko ahalegina eginez bukatu nahiko nuke. Familiako arazoen irtenbide guztiak ezin dira haurren kontura bakarra konpondu. Lan-saio murrizketak hor daude aldarrikatzeko, baita ama eta aitaren arteko konponketak, edota haurrak txikiak diren bitartean beharrezkoak diren baimenak eskuratzeko ahaleginak egitea. Guztion zeregina da armonia bat lortzea. Aita, ama eta HAURRA kontutan hartuko duen egitura burutsuak sortu behar ditugu, bide errezenetik abiatu beharrean.

Gure politikoez haur txikiei (bozkatzeko ez dutelako) jaramon gutxi egiten omen die. Kasu honetan haurren bozka baino haurren esanahiak eta premiak ulertzeko klabeak falta zaizkigula iruditzen zait. Haurren eskubideen errespetuan guztiok gara pareko, guraso, hezitzaile eta instituzioetako arduradunek. Haurren heziketan guraso eta eskola/haur-eskolen arteko elkarlana modu osagarri konbinatzea eskaintza oso aberatsa da, baina ez da egia gurasoek, guraso direlako, nahi dutena egin dezaketela beren umeekin, egia ez den bezela ikastetxeek, ikastetxeak direlako, egiten duten guztia haurrentzat ona izan behar duenik.

IZASKUN MADARIAGA IRAGORRI

Haur txikien Hezitzaile-Irakaslea eta Pedagogoa.